

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA 2021-2022

Proyecto de Normalización Lingüística

SARRERA

Hizkuntza Normalkuntza Proiektua (HNP) Aniturri ikastetxean urte luzez landutako proiektua da. Bere helburua euskararen erabilera sustatu eta hezkuntza komunitate osoan erabilera ohitura batzuk hedatzea da.

ANTOLAKUNTZA

HNP ikastetxe osoko proiektua da. Hau da, hezkuntza komunitate osoari lotuta dago honen bilakaera. Ikastetxeko zuzendaritza eta honen ordezkartzan, **Hizkuntza Normalkuntza Arduradun Teknikaria (HNAT)** da proiektu arduraduna. **Hizkuntza Normalkuntza Batzordeak (HNB)** proiektuan zehaztutako ekimen edo jarduerak burutzeko eta gidatzeko ardura du. Proiektuak 9 orduko dedikazio orduak jasotzen ditu Hezkuntza Arlotik. Ordu horietaz gain, partaide bakoitzak bere formakuntza ordua du, koordinatu eta lanak aurreratzen joateko. HNATk 90 orduko formakuntza ziurtagiri bat izateko eskubidea du. HNB-ko kideek 60 orduko formakuntza ziurtagiri bat izateko eskubidea dute. Ordu horien banaketa ondorengo zerrendan agertzen da:

- **HNAT:**
- Beñat Maiz Agirre (3 ordu)
- **HNB:**
- Nerea Arriola Igartua (2ordu)
- Eva Garcia de Albeniz Ruiz de Munain (2 ordu)
- Igor Gallastegi de la Fuente
- Irati Mujika Agirrebengoa
- Jordi Serra Geli
- Joxe Manuel Leitza Razkin
- Nerea Arriola Igartua
- Onintza Negueruela Izagirre
- Unai Otermin Benito
- Xabi Reparaz Extramiena

HNAT-aren arduren artean, **Ulibarri** proiektuan parte hartu eta hura garatzeko ardura dago. Programa honen helburua, euskararen erabilera normalizatzea da. Horregatik, ikasturteko egin plangintza eta ondoren memoria egiten da. Bestalde, **NOLEGA** dirulaguntzak eskatzea, zein hilean behin Berritzegunean burutzen diren bileretan parte hartzea daude zeregin hauen artean. Aurtengo osasun egoera berezia dela eta, bilera hauek era telematikoan egiteko aukera zabaldu dute. Honetaz gain, Udaleko teknikariekin bilerak izaten dira herriko beste ikastetxeekin koordinatzeko asmoz.

ULIBARRI

Ulibarri deritzo Hezkuntza Arloko Hizkuntza Normalkuntza Agentziari. Hark bideratzen ditu normalkuntza prozesuko ekimen eta jarduerak. Hark ebaluatzen eta kuantifikatzen ditu lortutako emaitzak. Hala nola, lau urteko proiektuak burutzen ditu urteroko plangintzaz at, indikatzaile sail baten bidez 2018-2022 bitartean egindako lorpenak aztertzeo.

Honez gain, 21/22 ikasturtean, datozen 4 urteetarako hizkuntza normalkuntza proiektuaren plan estrategikoa burutu behar da. Horretarako, lehenik Aniturriko hezkuntza komunitate guztiaren hizkuntza erabileraren diagnostika gauzatuko da. Ondoren, datu hauek aztertu, eta plana gauzatuko da.

NOLEGA

Hezkuntza Arloak Hizkuntza normalkuntzan egindako ekimenak sustatzeko diru laguntzak ematen ditu eskaera eginez gero. Bestela, ikastetxearen esku geratzen da ekintza eta jardueren kostua. Diru laguntza hauek, ohi denez, justifikatu beharra daude kurtso amaieran haiek jasotze aldera.

EKINTZAK ETA JARDUERAK

Kurtsoan zehar burutzen joango garen ekintzek eta jarduerak irakasleen eta ikasleen inplikazioa eskatzen dute. Osasun egoera berezia dela eta, jarduera hauetako asko bertan behera gelditu dira eta beste batzuk atzeratuak izan dira hirugarren hiru hilabetera. Urteko Ulibarri planean zehaztutako ekintzak ondorengoak dira:

- **Bertso Bizi Gazte (BBG):** Arabako Bertsolari Elkarteak ikasleentzat sortutako bertsolaritza tailerra da. DBH3 eta BATX1-eko ikasleekin burutzen da. Aurten modu

telematikoa egiteko aukera eskaini digute. Lau saio dira, hauen helburua ikasleak errimak egiten trebatzea da. Rapa ere erabiltzen dute ikasleak motibatuzeko, Ekintza hau Lautada Ikastolakoekin batera egiten da eta amaieran lehiaketa bat burutzen da bi ikastetxeen artean.

- **Irratigintza tailerra:** Hala Bedi irrati libreko bi monitorek burutzen dute. Hauen helburua ahozkotatzea lantzea da. 2 DBHn egitea proposatzen dugu.
- **Idazlea Ikastetxean:** Euskal Idazleen Elkarteak eskainitako jardura hau DBH1-en burutzea pentsatu da.
- **EUSLE:** AEK-k eskaintzen duen jardura hau ikastetxeko maila guztietan burutzen da. Gelan euskal hiztunen laguntzaz euskararen erabileran konpromezu bat hartu eta haien laguntzaz hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin.
- **Asmakizun lehiaketa:** Ikasleen artean sustatzen den euskarazko asmakizun lehiaketa.
- **Euskararen eguna:** Abenduak 3, ikastetxeko maila guztientzat hainbat ekintza antolatuko dira.
- **Eusliderrak:** AEK-k antolatuta egingo da hirugarren hiruhilekoan. Udaletxeak ordainduko du. Ikasleengan euskaraz aritzeko joera sustatu nahi da ikasle batzuk erreferente bihurtuz.
- **Oxigenoa euskarari:** Aguraingo Kuadrilak antolatutako mendi irteeretan euskaraz aritzeko espazioak sortzeko asmoz burutzen da. Gure ikasleak bertan parte hartzea bultzatzen ditugu.
- **Ikasbideak:** Programa honen bidez, euskararen eta lan munduaren arteko loturari begira.
- **Egunean behin:** Jolas aplikazio baten bidez ikastetxeko irakasle zein ikasleak euskaraz lehiatzeko aukera zabaldu da.
- **Pulunpa egitasmoa:** DBH1eko ikasleei zuzenduriko programa honekin gazteek euskara sustatu, gozatu eta euskal kulturaren ezagupenak sendotuko dituzte. Era berean, euskara oinarri hartuta, emozioak eta sentipenen bitartez, hizkuntzarekiko atxikipena bultzatuko dute modu inklusibo batean. Trebatutako begiraleek dinamizatutako proiektua da. Ikasturtean zehar burutuko da: Irailean aste oso batez, eta ondoren, egun bateko ekimenak egingo dira: euskararen egunaren harira, udaberrian, eta ekainean.
- **Euskal Girotze Barnetegiak:** DBH1eko ikasleak 4 barnetegi ezberdinetara joango dira, lau egunez. Honen helburua da, ikasleei euskal giro goxo eta aberatsean bizipen gogoangarri bat izateko aukera eskaintzea, era horretan euskara ikasteko prozesuari eta hizkuntzarekin duten harreman afektiboari bultzada eragingarria ematea. Bestalde, ikasleen arteko harremanak sendotzea eta emozioak lantzea izango du helburu.
- **Korrika:** 2022ko udaberrian izango da, eta ikastetxetik bertan parte hartzea bultzatuko da.
- **Coca-cola lehiaketa:** Euskarazko narrazio laburren lehiaketa da.

*Covid-19aren egoerak baldintzatuta, aurreko ikasturte batzuetan eginiko hainbat ekimen bertan behera gelditu ziren, **Mintzodromoa**, **Durangoko azokara irteera**. Aurten, egoerak ahalbidetzen badu, egingo dira.

DENBORALIZAZIOA

JARDUERA	TALDEAK	BURUTZE DATA
Oxigenoa euskarari	DBH	Irailean izen ematea
Egunean behin	Guztiak	Ikasturtean zehar
Euskararen eguna	Guztiak	Abenduak 3
Bertso Bizi Gazte (BBG)	DBH3 eta BATX1	3. hiruhilekoa
Irratigintza tailerra	DBH2	2. hiruhilekoa
Idazlea Ikastetxean	DBH1	3. hiruhilekoa
EUSLE	Guztiak	2. hiruhilekoa
IKAS2DEAK	DBH 4	2. hiruhilekoa
EUSLIDERRAK	DBH	3. hiruhilekoa
Asmakizun lehiaketa	Guztiak	Ikasturtean zehar
PULUNPA	DBH1	Ikasturtean zehar
Euskal Girotze Barnetegiak	DBH1	1. hiruhilekoa
KORRIKA	Guztiak	3. hiruhilekoa
Coca-Cola lehiaketa	DBH2	2. hiruhilekoa
Durangoko azoka	DBH4	2. hiruhilekoa

2021 irailak 21, Agurain.
BHI ANITURRI
Beñat Maiz Agirre

Resumen del plan anual del Proyecto de la Normalización del euskara

Principal objetivo de este curso: Potenciar el uso del euskara entre todos los miembros del centro.

Para ello, primero realizaremos un diagnóstico sobre la realidad lingüística de la comunidad educativa de Aniturri. Después, se realizará una programación para llevar a cabo la normalización del euskara en los próximos cuatro cursos.

OBJETIVOS	ACTIVIDADES
<ul style="list-style-type: none">- La comunicación del alumno/a con el profesorado será en Euskara.	<p>Los profesores se comunican con los alumnos/as en euskara dentro y fuera del aula pero en cambio hay muchos alumnos/as que hablan en castellano con los profesores. En esto hay que incidir especialmente este curso.</p>
<ul style="list-style-type: none">- Usar el euskara en las relaciones con los padres y madres.	<p>Con los padres y madres euskaldunes la comunicación será en euskara.</p>
<ul style="list-style-type: none">- Constituir y dinamizar la Comisión de Euskara.	<p>Constituir la Comisión de Euskara y organizar y participar en las actividades programadas. Se intentará aprovechar el grupo de "líderes" que se construya con la iniciativa Euslider.</p>
<ul style="list-style-type: none">- Incidir en la actitud de los alumnos/as con respecto al euskara e impulsar su uso.	<ul style="list-style-type: none">- Eusliderrak (3º y 4º ESO). Taller para impulsar el uso del euskara donde se crean líderes (4ºESO) que serán referentes e impulsores en este tema para los alumnos menores (3ºESO).- Mintzodromoa. Los alumnos/as de 3º y 4º de la E.S.O. participarán en esta actividad organizada por AEK, ikastola "Lautada" y "Aniturri".- EUSLE. Algunos alumnos/as voluntarios se comprometerán a hablar en euskara dentro del aula y en los pasillos.
<ul style="list-style-type: none">- Se organizarán actividades para crear un ambiente adecuado que impulse el uso del euskara.- Se garantizará la participación de los alumnos/as en la cultura vasca.	<ul style="list-style-type: none">- Celebración del "Día Internacional del Euskara" el 3 de diciembre.- Concurso de adivinanzas.- Pulunpa- Euskal Girotze Barnetegia- Los alumnos/as de 3º de la E.S.O. y los de 1º de Bachiller harán un taller de bertso.- Algunos voluntarios /as de 3º participarán en el Concurso de videoclip "Bertso Bizi Gazte".- Un escritor dará una charla a los alumnos/as de 1º de la E.S.O y 2º de bachiller sobre un libro que han trabajado en clase.
<ul style="list-style-type: none">- Participar en la Comisión de Euskara del Ayuntamiento.- Realizar varias actividades junto con otros centros de enseñanza y entidades que trabajen por el euskara.	<ul style="list-style-type: none">- Participar en la Comisión municipal de Euskara y organizar actividades: La Semana del Euskara, Agurainen Kirola Euskaraz,<ul style="list-style-type: none">- "Eman oxigenoa euskarari", actividades programadas en euskara, como salidas al monte los fines de semana.